

ALDI, BIDE, KIDE, ERDI-ATZIZKIAK?

Elixabete Perez Gaztelu

Deustuko Unibertsitatea

1. Atariko¹

Bai euskaraz, bai beste hizkuntza batzuetan aspaldiko kontua da hitz elkartuen eta eratorrien artean mugak paratzeko zailtasuna. Hizkuntza erromantzeetan buru-hausterik handiena ezkerreko osagaiak eman izan du; euskaraz, berriz, eskuinekoak. Euskal gramatikak ditugu kezka horren lekuko (Uhlenbeck 1909, Azkue 1923-25, Lafitte 1944, Villasante 1974, Azkarate 1990, 1991, Euskaltzaindia 1987, 1991, 1992...). Zalantza-sortzaile horietako batzuentzat sortu zen, hain justu, *erdi-atzizki* deizioa, Marchand-en (1960) *semi-suffixe* edo Dimitrescu-ren (1969) *suffixoïde* terminoen bidetik. Esana dugu, hala ere (Perez Gaztelu 2001), muga-arazoak esparru zabalagoa hartzen duela.

Bistan da auzi honen erroan hau dagoela: elkarketa eta eratorbidea nola definitzen diren² eta, honen ondorioz, zein irizpide erabiltzen diren hitz eratorriak eta elkartuak berezi eta sailkatzeko.

Euskal morfologiaren soroa hain sakon jorratu duen Rudolf de Rijk irakaslearen omenez dakargun lan honetan, beste urrats tiki bat egin nahi dugu muga-auziaren azterketan. Horretarako, Euskaltzaindiak (1992) erdi-atzizkitzat joetatik, *aldi*, *bide* eta *kide* jo ditugu begiz beste hainbaten erakusgarri izan daitezkeelakoan.

Abiapuntuan esan dezagun gaurko hiztunarentzat hirurak hiztegi-sarrerak³ direla, *aldi-ez*, *bide-ez*, edo *kide-ez* (baina ez **-garri-ez*, **-di-ez*...) hitz egin dezakeen heinean. Hortaz, hiztegi-sarrerak ez direla litzateke erakutsi beharrekoa. Nolanahi dela ere, erantzun beharreko erroko galdera, erdi-atzizkitzat hartzeko arrazoi nagusia, hauxe da: zergatik erabiltzen ditugu horiek horren maiz hiztegi-sarrera bat eratzen beste hiztegi-sarrera baten eskuinean? Zer dute berezi muga-auziak sortzeko? Honi erantzuten saiatzea da lan honen helburu nagusia.

Honela jokatu dugu: hirurak beregain darabiltzagunean duten jokamoldetik abiatuta elkartuetako eskuineko osagaiak direnean alderik ba ote dagoen ikusiko dugu. Ho-

¹ Lan hau egiteko *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios*. DGES PB96-0457-C03 proiektuari [EMES] emandako laguntzaz baliatu gara. Eskerrak eman nahi dizkiegu Juan Carlos Odriozola eta Igone Zabalari egin dizkiguten oharrengatik; okerrak, jakina, gureak besterik ez dira.

² Lan honen mugak gaiztuz dituzenez gero, Azkarate 1990, 1991 eta [EMES] lanetara jo daiteke.

³ Hiztunaren hiztegiaren kategoriatik lexiko nagusia dena.

rretarako, osagaien ezaugarrien eta osagaien arteko harremanen berri emango dugu, egin ditugun galderei ondorioetan erantzuteko.

2. Aldi

2.1. Osagaien ezaugarriak

2.1.1. Aldi izen bizigabea ondoko osarako elkarteetako eskuineko osagaia izaten da

[I *aldi*]. Ezkerreko izenak gehienetan bizigabeak dira (*aginte, gudu, opor, denbora...*), baina bizidunak ere onartzen ditu (*preso, errege...*). *Zortzialdi, hamabostaldi, berrogeialdi* adibideak ditugu bestetik. Zenbatzaileak⁴ ez dira oso ohikoak izaten izen-elkarteetan,⁵ baina uste dugu hiztunak zortzi... egunak, arrazoi pragmatikoak direla medio, batasuna duten denbora unitatetzat dauzkala. Horrexegatik, horietatik kanpo ez dugu [Zenbatzailea *aldi*] modukorik egiten: **bialdi, *bostaldi...* Honela, *aldi*-k *aldi*-izenak⁶ eratzen ditu.

Orainaldi, lehenaldi... elkarteetako ezkerreko osagaiak ere izen bihurtutako aditzondotzat dauzkagu. Guztiek onartzen dute hiztegiek ere jasotzen duten izenen eginkizuna eta, bestalde, kide lituzketen denborazko aditzondoak ez ditugu baliatzen elkarte honetan: **berandualdi, *etzialdi...*

[Adj. *aldi*] mota azpimarratzekoa da, hurrenkera dela eta. Aurrera dezagun, halaz ere, egoerako predikatuak direla (behin-behineko egoera adierazten dutenak), ez izaki mailakoak (behin betiko izaeraren adierazleak) (Zabala 1993): *haurdun, gaixo, zakar, hits...* Hots, egitura hauetan ez dira izenondoak, izenaren ondoko modifikatzaileak; horregatik baliatu dugu *adjektibo* hiperonimoa.

[Aditza *aldi*]. Mota emankorrena da. Hurrengo puntuan zehaztuko dugu.

2.1.2. Adiera eta erreferentziatzko balioa

Beregain darabilgunean *aldi*-k ez du berez oso esanahi sendoa eta aldi berean polisemikoa da: 1. «denbora hedadura» («denbora», «garaia»), 2. «gertaera baten gauzatze bakoitza», 3. «txanda», 4. «denbora zatia», 5. «gramatikako aditzaren aldiak» bereizten ditu SEHK. Era berean ikus daiteke denbora adierazten duenean oso erreferentzia-balio zabala izan dezakeela: kontraktoak diruditen hedadura eta unekoa barne hartzen dituela. Baina ez du berez erreferentzia sendorik ezartzen, ez ditu denbora-mugak ezartzen: zer-baiten edo norbaiten aldia da, ez «aldia» berez; osagarri bat behar du denborazko erreferentziatzko ardatza mugatzeko. Horregatik «arina»⁷ dela esango dugu (Leonetti-ren 1999:

⁴ Zenbatzaileek ISetan duten jokamoldearen auzia bazter utziko dugu.

⁵ *Lauburu, hamalauzanko...* modukoak alde batera utzita, bistan baita exozentrikoak direla.

⁶ Bosque-ren (1999a: §1.5) *nombres que designan periodos*-en ordain. Ikertzaile honek dio aldi-izenek gertaera-izenak ez izanik ere haien modura joka dezaketela. Guztiz bat dator gure azterketarekin.

⁷ Aditzez aritzeko erabiltzen da (*light, ligero*). *Izen arin* euskal deizioa, gurea da eta ez dugu ordezkorik ikusi eskuztatu dugun bibliografian. Bestalde, ez dugu esan nahi osagarria eskatzen duten mugako eraikuntzen eratzale guztiak hala direnik: *zain* eta *zale* predikatuek, besteak beste, osagarria eskatzen dute, baina ez dira gure ustez arinak.

§12.3.1 moduan), denborazko izen arina.⁸ Bestetik, berriz, azpimarratzekoa da gertaera gauzatzea ere adieraz dezakeela, 2. eta 3. adieretan ikus daitekeen bezala. Gertaera hau, gainera, iteratiboa, behin eta birritan gerta daiteke. Baina, berriz ere, *aldi*-ren erreferentzia-balioa ez da ohiko gertaera-izenena bezain sendoa, eta, gainera, gertaera denboran kokatzen du. Honek *aldi* gertaera-izenen eratzailatzat ere har daitekeela pentsarazten digu.⁹ Ikus ditzagun orain *aldi*-k hitz elkartuetan duen jokamoldearen lerro nagusiak.

Aldi-k denboran hedadura adierazten du: *Aldi*-k ezkerretara daramatzen osagaiei ezartzen dien murrizpena da oro har iraupenezko aspektu lexikokoak izatea.¹⁰ Honek erakutsiko luke *aldi*-ren jokamolde berezia: *aldi*-ren iraupenezko aspektuak buru gisa jokatu eta aspektu hori duten osagarriak aukeratuko lituzke, antza.¹¹ Horregatik, izen bizigabeak ditugunean, oro har, beren adieraren ezaugarrietako bat denboran iraupena izan ahal izatea da. Gertaera- edo ekintza-izenak (*aginte, gudu...*) dira batzuk, denbora adierazten dutenak beste batzuk (*asti, opor, denbora...*; eta lehengo *zortzi...*). Gizakiak bizi ditzakeen sentimenduak, egoera adierazten dutenak: *bake, aisia, asper, neke, barau, poz...* Eguraldiarekin zerikusia dutenak ere bai: *izotz, hotz, euri, bero...* Izen bizidunak ditugunean ere (*errege, preso...*) egoerako predikatu moduan ulertzen ditugu: «errege-tzak, preso egoteak irauten duen epea».

Izen bihurtutako denborazko aditzondoak ere iraupenezkoak dira:¹² *antzina, gero, orain, lehen...* Era berean, horrek argituko luke ohiko elkarteetan gertatzen ez den adjektiboak ezkerretara onartu ahal izatea: ez dira izaki mailako predikatuak¹³ (**polit-aldi, *kezkgarri-aldi...*), egoera mailakoak baizik. *Aldi*-k, kategoriaren gaintik aspektua aukeratzen bide du.

Aditzen sailean ere murrizpen bera dugula dirudi: gertaerak aspektuaren aldetik iraupenezkoa izan behar du. Hala, egoerakoak ditugu batzuk: *etzan, egon...*; jarduera (*activity*) ezaugarrikoak ugari: *entzun, jardun, lan (egin), (tresna bat) jo, kantatu...* Mota honetan etengabeko mugimendua adierazten dutenak franko dira: *ibili, dantzatu...*

Aldi-k gertaera gauzatzea adierazten du: Hemen ez dugu egoera aspektuko osagairik *aldi*-ren ezkerretara. Denek dute iraupena, batzuek laburra badute ere. Horregatik, aditzak batez ere, baina ez beti (jarduerakoak ere baitaude), lorpena (*accomplishment*) eta gauzatzea (*achievement*) aspektu-ezaugarrikoak dira: *joan, etorri, jaso, ebaki, erori, as-*

⁸ Eta antzeko zerbait esan daiteke Euskaltzaindiak (1992) «*hitzaurre* moduko deiktiko» direlakoan artean sartzen dituenek. Horren harira esan dezagun, *deiktiko* deizioaren egokitasuna gorabehera (Lyons 1977, Levinson 1983, Leonetti 1999...), ez dugula arrazoi erabakigarriak ikusten *aldi* ere multzo berean ez sailkatzeko: guztiak dira leku-denborazko izen arinak.

⁹ Azken ezaugarri honek, besteak beste, bereiziko luke bestela aski kide duen —eta Euskaltzaindiak erdi-atzizkitzat daukan— *aro* denbora-izenetik.

¹⁰ Batik bat Vendler (1967) eta De Miguel-i (1999) jarraituko diegu. Nolanahi dela ere, bibliografian esaten den bezala, aditz berak interpretazio bat baino gehiago izan ditzake. Gainera, aspektua osatua denez gero (*composicional*), bestelako hizkuntza-baliabideek (flexioak, egitura sintaktikoek...) aldaraz dezakete, eta, beraz, hitz elkartu berak bai «denbora» bai «gertaera gauzatzea» adieraz ditzake (*jokaldi...*). Hemen aspektu lexiko soilaren joera nagusiez ari gara.

¹¹ Bosqueren (1990) azterketaren ildotik.

¹² Beste kontu bat da zer dela eta eratu ditugun ezkerreko osagaiak (*opor* bezalako izenak, nahiz *orain* izen bihurtuak bezalakoak) berez denboran iraupena adierazten badute.

¹³ Bereizkuntza hau garbi ikus daiteke *gaixo* hartuta. *Gaixo*a izan daiteke 1. «eria» (egoerako predikatu batez ere), nahiz 2. «gajoa», «erukarria» (izaki mailakoa). Baina *gaixoa*-k, «gaixotasunak irauten duen denbora» beste aditzeko modurik ez du; egoerako predikatutik abiatuta, alegia.

tindu, eskegi, irakin, bete, ase, jokatu, irakurri, garbitu, loratu, haserretu, berotu, erein, irakin, egosi, jo, agertu......

Ekintza- edo gertaera-izentzat har daitezkeenez osatuak ere badira: *kasketa, hitz (egin), jai, hizketa, haize...* Gertaera behin gauza daiteke, nahiz behin eta birritan.¹⁴ Pentsatzekoa den bezala, aspektu iteratibokoek aukera handiagoa dute horrela hartzeko: *eztut (egin), arnasa (hartu), dardara (egin)*... Badirudi, nolana dela ere, *aldi*-rekin elkartzean lorpena, gauzatzea..., osorik betetzen dela, oso denbora laburrean bada ere.

Ildo nagusien berri eman dugu. Adiera guztiak kontuan hartuta, hala ere, badirudi *aldi*-k askatasun handia duela aditzak aukeratzean.¹⁵

Aldi-k ez bide digu elkarerik osatzen ezkerreko osagaiaren denboraren zatietako bakoitza adierazteko. Beste era batera esanda, ez dirudi «Europako guduaren bi aldian» eta «Europako bi gudaldian» esanahi berekoak direnik.

Ildo beretik, *dantzaldi, agintealdi*... modukoetan ez dugu ulertzen aginteak, dantzak irauten duen denboraren zati bakoitza, «dantzatzea» edo «dantzak, aginteak... irauten duen denbora osoa» baizik. Hots, badirudi, *aldi*-ren aspektuak berriz ere eragina duela: ezkerreko osagaiaren gertaera osorik gauzatzen da beti, oso denbora laburrean bada ere. Honek adieraziko luke hurren aztertuko dugun osagaien arteko harreman semantikoen ikuspegitik ez dugula «osotasuna-zatia» harremanik *aldi*-z eratutako hitz-elkarteetan.¹⁶

2.2. Osagaien arteko harremanak

2.2.1. Esanahiaren araberako harremanak

Mugatzaile/mugakizun mendekotasunezko harremana dugu: *aldi* mugakizunak iragazten dizkio bere ezaugarri guztiak hitz elkartuari (Lieber 1992 eta abar). Mugatzaileak, berriz, erlazio semantiko hauek ispiatzen ditu, oro har. Zabal hartuta, 'edukia' harremanaren bitartez azal daitezke, 'zer-noiz':

Bai izenak edo adjektiboak mugatzaileak direnean: *oporraldi* «aldi horretan oporrak zertu», «oporrak betetzen dute aldi hori»; *haurdunaldi* «aldi horretan haurdun egon», «haurdun egoteak betetzen du aldi hori»...

Bai aditzak ditugunean. *Jaiotegun* erakoen gisan, «denbora» adierazten dutenak honela adi daitezke: *egonaldi* «aldi horretan egotea zertu»... eta «gertaera gauzatzea» adierazten dutenak ere bai: *irakinaldi* «aldi horretan irakitea zertu»...

2.2.2. Osagaien arteko egitura-harremana

Mendekotasunezko izen elkartu askotan ez bezala, mugatzailea ez da *aldi*-ren adjuntua, osagarria baizik (Grimshaw 1990).

Aldi izen arina izateak dakar osagarri-erreferentzia sendoagoko beste kategoria lexiko bat behar izatea erreferentzia zehazteko: zeren/noren/zertarako... aldia? Horrek argituko luke zergatik darabilgun hain maiz hitz-elkarteetan.

¹⁴ Horren lekuko dugu euskal hiztegieta «X egitea», «X egiten den aldia» definitzea.

¹⁵ Azterkizun utziko ditugu dauden murrizpenak (**edukialdi*, **pentsaldi*, **ahantzaldi*, **gogoraldi*, **iritsaldi*...).

¹⁶ Eta honexek bereiziko luke beste alderdi batzuetatik kide duen *alde* izenetik: *orrialde*...

3. *bide*

3.1. Osagaien ezaugarriak

3.1.1. Hitz elkartuak osatzean ezkerretara izenak eta aditzak onartzen ditu. Izenak bizidunak (*errege, zamari...*), bai bizigabeak izan daitezke: konkretuak (*gurdi, arnasa, mendi, zeru, harri...*) nahiz abstraktuak (*zorion, amets...*).

Aditzak, berriz, badirudi *bide*-k ezartzen duen murrizpena egoerako aditzak ez onartzea dela **etzanbide, *egonbide...*; gainerakoan, ez bide dago murrizpen sendorik.

3.1.2. Adiera eta erreferentziatzko balioa

Hiztegiek *bide* sarreran, bide fisikoaren hitzez hitzeko adieraz gain (*bide*₁ esango diogu), beste abstraktuago batzuk ere jasotzen dituzte («bitartekoa», «modua», «aukera», «arrazoia»...) (*bide*₂). Ikus dezagun *bide*-en jokamoldea elkartetan.

Izen konkretuetan, oro har, *bide*₁ dugu batik bat. Izen abstraktuak ditugunean edo, jatorriz konkretuak izanik ere, metafora gisa darabiltzagunean *bide*₂-ren adierak dira nagusi. Aditzen sailean ere beste horrenbeste egiazta dezakegu: mugimendu, ariketa erako aditzak ditugunean *bide*₁ izan ohi da adiera (*ibili, atera, heldu, igo...*). Hala ere, hauetako askok *bide*₂-ren adierak ere bereganatuak dituzte. Bestelako giza ariketak direnean tarteko *bide*₂-ren adierak¹⁷ nagusitzen dira: *aztertu, pentsatu, jokatu, eskatu, irabazi...* Hots, beregan darabiltzagunean ditugun adiera berak.

3.2. Osagaien arteko harremanak

3.2.1. Harreman semantikoak

Arestiko bera dugu mugatzaile/mugakizun mendekotasunezkoa: *bide* da mugakizuna. Era askotako harremanak izan daitezke mugatzailearen eta mugakizunaren artean, baina badirudi mugatzailearen azpikategorizazioak eragina duela harremanak gauzatzean.¹⁸

Ezkerreko izena konkretua eta berez mugikorra nahiz besteren baten indarrez mugi daitekeena denean: biziduna bada, pentsa daiteke «jabea» *errepide* «erregearen bide» edo «onuraduna», «erregearentzako bidea»... dugula. Azken harreman hauxe dugu, hain justu, ezkerreko izena [-biziduna] izan eta garraioa edo nolabaiteko «mugimendua» egotzen diegunetakoa bada: *gurdibide, gasbide...* «Helmuga» adieraz dezakegu ezkerreko izenak leku jakin bat izendatzen duenean: *elizbide, zerubide...*

Ezkerreko izenak bidea egin daitekeen gaia adieraziz gero, horixe da harremana, «gaia»: *burdinbide, harbide...* Beste batzuetan «non» dagoen bidea da adierazten dena: *mendibide, hiribide...* «xede», «zertarakoa» da ezkerretara izen abstraktuak (*zorionbide, amets-bide*¹⁹...) eta aditzak ditugunean dugun harremana, aditzetan *bide*-ren esanahiak eraginik ez duela: *ibilbide, azterbide...*

¹⁷ Baina bere sinonimoez nekez egiten ditugu «jarleku» motako izen elkartuak: **azterbitarteko, *eskamodu, *irabazaukera, *ihesarrazoi...* Honek ere merezi du ikertzea.

¹⁸ Azterkizun zerranda luzatzeko: izenen azpikategorizazioa sakon zehaztea.

¹⁹ Hauetako askotan, egia esan, duda egin daiteke benetan izena edo aditzoina (*amets, damu, solas...*) ote dugun, edo aditz-esapidako osagaia (*amets egin, damu izan, solas egin...*). Nolanahi dela ere, harreman semantikoa ez da aldatzen.

3.2.2. Egitura-harremana

Bai *bide*₁ bai *bide*₂ dugunean *bide* da burua, baina ez dute biek egitura-harreman bera, gure ustez. Lehenak adjuntu/buru harremana du, ezkerreko osagaia *bide*-ren modifikatzailea da: *bide*-ez hitz egin daiteke nolako bidea den zehaztu gabe. *Bide*₂-koek, berriz, osagarri/buru modukoa dute; alegia, alde honetatik *bide*₂ izen arintzat hartzekoa ematen du: zertarako bidea? Beraz, proposa daiteke bi *bide* daudela: batak (*bide*₁) adjuntu/buru eta besteak (*bide*₂) osagarri/buru harremaneko izen elkartuak eratzen dituzte.

Gure ustea da erdi-atzizkitzat hartu izanaren arrazoia *bide*-en esanahietan datzala: *bide*₂ maizago darabilgu beste kategoria lexiko baten —batez ere aditz baten— eskuinean, izen arina izaki. Honek dakar egitura-harremanaren eskakizunak bete behar izatea: hor du argibidea maiztasunak.

4. (*k*)*ide*²⁰

Jatorri kontuetatik hasita esan dezagun arestiko bientzat ikertzaileek izena → atzizkia, baina *kide*-rentzat alderantzizko bilakabidea aipatzen dutela.²¹ Baina ez da hau *kide* berezi egiten duen alderdi bakarra. Horrek eraman gaitu azterketa ere aurrekoena ez bezala gauzatzera.

4.1. Osagaien ezaugarriak eta kide motak

4.1.1. kide

4.1.1.a. Lehenbiziko mota, urriena, [I [+gizakia] *kide*]₁ da. Ezkerreko osagaia edo ahaidego- (*aita*, *ama*, *anaia*...) edo predikazio-izaerako (Zabala 1993) izena da: *jabe*, *mirabe*, *heredero*, *egile*... Hitzegiek ez dute beti mota hau modu berean hartzen eta hiztegitik hiztegiara ere aldea dago: batzuetan batean idatzi eta hiztegi-sarreratzat jotzen dituzte; bestetan, berriz, katea sintagmatikotzat dauzkatela dirudi.

Ortografiak ortografia, [I *kide*] segidak (*jabekide*...) atribuziozko parafraasier eman daitezke: «jabeak kideak dira»...; alegia, predikazioaren subjektu bizidunek batean dutena atribuzioaren ezaugarri bera da: «jabe»,... izatea. Ezaugarri hori predikazioak besarkatzen dituen subjektu guztiak aldi berean batean izan behar dute (*jabekide*-ez hitz egiteak «jabe» izateaz gainera, ondasun beraren jabeaz ari garela esan nahi du) eta ezin daiteke izaki bakarraz predika, esanahiaren ikuspegitik subjektu plurala (morfologikoki hala dena edo subjektu juntatuak izanik) eskatzen baitu.²² Nahitaezkoa du, hortaz, izaki

²⁰ Aurrerantzean herskari eta guzti emango dugu, emankortasuna dela bide.

²¹ «el significante con sorda inicial se usaba normalmente sufijado a otro y sólo tardíamente ha alcanzado existencia independiente (*kide*, *tegi*, etc.)». (Michelena *FHV*: 240).

Lagun (Euskaltzaindia (1992) erdi-atzizkia) eta alde askotatik kide duena honetan ez dator bat, baina, eskuarki, *kide*-ren azterketak *lagun*-entzat ere balio izan dezake.

²² Singularrean erabil daitezke, jakina («Nire lankidea da», «Lankide dut»...), bigarren argumentua berreskura badaiteke.

Elkar izenordain elkarkariaren eskakizun berak dira (Euskaltzaindia 1993: 68). Baina elkarkari izatea (sintaxia) eta simetriko izatea (semantika) ez dira baliokide erabatekoak. Gai honetan Bosque-ren (1985) lanera jo behar da ezinbestean.

hori beste batzuekin harremanean egotea²³ (Bosque 1999b: §4.3.5.4., Sánchez 1999: §16.3.2.2). Hau dela eta, *kide* (*izan*) izaki mailako predikatua simetrikotzat jo daiteke, *lagun*, *antzeko*, *ahaide*, *auzo*... *izan* diren bezala.

4.1.1.b. [I[-biziduna] *kide*]_{Izond}: *bidaide*, *lankide*... Hauek dira ugarietak. Ezkerreko izen gehienak konkretuak dira, baina abstraktuak ere badaude (*gogo*, *poz*, *gaitz*...).

«Kideak direla» predikatzen den subjektuek orain ere zerbait izan behar dute batean, *kide*-ren ezkerreko osagaiak adierazten duena, tokia, ariketa, iritzia, garaia..., baina ez dago atribuziozko harremanik: *«bideak, lanak... kideak dira».

4.1.1.c. [I[-biziduna] *kide*]_{Izond}: *hoskide*, *zentrokide*... Elkartu hauek *kide*-ren kategoria- eta azpikategorizazio-auziak ispliatzen dituzte.

Argi dezagun lehenik *kide* beregaina ez dela bakarrik subjektu bizidunen predikatua. OEHN bertan badaude izen bizigabeak subjektu dituzten *kide*-ak (*oinetako*, *zuhaitz*, *hots*, *bizkuntza*...).²⁴ Baina nekez aurkituko dugu gisa honetako elkarturik: **oinetakokide*,²⁵ **bizkuntzakide* bezalakorik. Erreferentea [-biziduna] duten elkarteak aurkitzeko beste era bateko adibideetara jo behar dugu.

Kide-ren izaera predikatiboaren eragina da hiztegiek ispliatzen duten kategoriaren zalantza,²⁶ aspaldi samarreko adibideak (*mugakide*, *garaikide*...) barne. Alabaina, ezin atzenezko da izenondotzat (ere) jotzen diren elkartuok, oro har, [+gizakia], edo guxtienez [+biziduna] azpikategoriari izenen modifikatzaileak direla.

Adibide berriagoak, berriz (*hoskide*, *baliokide*...), batez ere izen bizigabeen modifikatzaileak dira.²⁷ Orain ere *kide*-ren ezkerreko izenak ezartzen du subjektuak kide egiten dituen predikazioaren funtsa. Baina, arestikoak ez bezala, hauek parafraasi atribuziozkoa («hotsak kideak dira») eta iragankorra onartzen dute («X eta Y hoskideak dira» → «X-k eta Y-k hotsak kideak dituzte»); horren isla da hiztegiek definizioetan baliatzen dituztela: «X berak edo berdina dituen». Bestetik, berriz, aipagarria da izenondo hauetako asko, eta a. motako franko ere bai *egilekide*..., erdal *con-I* (GCVA & et. al. 2000: 287) aurrizkiak eratorritako adjektiboak (eta izenak) ordaintzeko sortuak direla. Kategoriaren auzia egitura-harremanaz aritzean berriz hartuko dugu. Guztiarekin ere, simetrikotzat jotzeko beharrezko ezaugarriak betetzen dituztenez gero, izenondo hauek ere *kide*, predikatuaz eratutzat jo daitezke.

²³ Ez bide da halabehar hutsa Mitxelena (FHV: 122, 309) hemen ikustea *-eki(n)* postposizio-atzizki soziatiiboaren etorkia: dena delako gertaera guxtienez biri dagokie.

²⁴ Errepara, hala ere, hauek ez direla predikazio izaerako izenak.

²⁵ Hau berezi samarra izan daiteke «pare» baten, «biko» baten osagarri izaera tarteko delako —«osagarritasun» harremana— eta honek nolabaitko murrizpenak ezar bide ditzakeelako. Ildo horretatik, ez dugu **idikide* (*uztarkide* bai, ordea), **galtzerdikide*... bezalakorik eratu. *Ezkontide* bai, baina oso ohikoa ez den [A *kide*] osararokoa da. Horregatik da berezia gure corpusean ELHk besterik ez dakarren *bikotekide*. Polikiago aztertzeko litzateke hitzak elkartu ahal izateko murrizpenak.

²⁶ Lan honen helburua ez da hiztegiek jokamoldea epaitzea, ez bi kategoria hauen arteko auzia garbitzea, baina azpiko auziaren isla izan daitezkeelakoan ekar dezagun adibide hau: SEHk *baliokide* izond. eta *mailakide* iz. *Sabelkide* izenondotzat hartzen du; guk izentzat hartuko genuke: «Etxean ditut bi senide, biak ene *sabelkide*». Era berean, *odolkide* izond. eta iz. sarrerako adibide bakarra ere gure ustez izena da «*Odolki-deak ere hiltzeko higuinik ez zuten*».

²⁷ *Lagun* ez bide dugu mota honetan erabili: **baliolagun*, **zentrolagun*... Hona biak bereizten dituen beste ezaugarri bat.

4.1.2. Kide²

batzarkide, sailkide..., aurrekoak baino berriagoak eta urriagoak dira.

Ezkerreko osagaia [I [-biziduna]] da eta *kide*₂-z eratzen dugun izena [+I, +gizakia] da. Alde honetatik, hortaz, ez dago alde handirik hemengoen eta 4.1.1.b.-koen artean. Areago, elkarre bera simetriko (1a) nahiz ez-simetriko (1b) moduan har daiteke.

(1) a. Patxi Gramatika-batzordekoa da eta Miren ere Gramatika-batzordekoa da → Patxi eta Miren batzordekideak dira

b. Batzorde horrek kide bakarra du, Patxi → Patxi da batzordekide bakarra

Honaino bi *kide*-en arteko antzak. Ikus ditzagun orain desberdintasunak. *Kide*₂-ren ezkerreko izena oso adiera zehatzekoa da: gizakiok antolatutako taldea izendatzen du (batzordea, saila...); *kide*₂-k giza talde hori osatzen duen gizabanakoa izendatzen du. Bestetik, *kide*₂-k ez du nahitaz eskatzen subjektu plurala. Honek esan nahi du, bitara har daitezkeen elkarrean, subjektu plurala badu irakurkera simetrikoa (1a) eta singularra badu, berriz, simetrikoa ez denera (1b) makurtuko gaituela (Peregrín Otero 1999: §23.3.3). Areago, subjektuak pluralak izanik, aditzeko modua [-simetrikoa] dela zehaztu nahi izanez gero, hiztunak aiseago joko du sintaxi-egituretara (2a) lexikoetara (2b) baino, azkenok modu simetrikoan aditzeko aukera handiagoa baitago:

(2) a. Ana eta Esther Euskal Filologiako eta Komunikazioko sailtako kideak dira, hurrenez hurren (-simetrikoa)

b. Ana eta Esther Euskal Filologiako eta Komunikazioko sailkideak dira (+simetrikoa)

Honek guztiak eraman gaitu *kide*₁ eta *kide*₂ bereiztera. Baina ondoren ikusiko dugu beste alderdi batzuetan ere ez dutela gisa berean jokatzeko.

4.2. Osagaien arteko harremanak

4.2.1. Harreman semantikoak

Gure ustea da bietan mugatzaile/mugakizun mendekotasunezko harremana dela eta *kide* dela beti mugakizuna.

*Kide*₁: Mugatzaileak adierazten du:

a) Izena [+gizakia] denean (*jabekide...*), subjektuek batean duten ezaugarria.

b) Izena [-biziduna] denean. Oro har, «kokatzea». «Kokatze» hori izan daiteke:

— lekuan, bai fisikoan, bai hala ez denean: *lankide* «lanean kide», *mugakide*, *sabelkide*, *gogaide*, *irizkide...*

— denboran: *adinkide*, *garaikide...*

— batzuetan, «gertaera» edo «ebentoa» dela dirudi. Batez ere mugatzailea bai gertaera- edo ekintza-izentzat, bai aditzointzat har daitekeenean (*lehiakide*, *solas-kide*, *bizikide...*) eta aditza duten adibide bakanetan (*ezkontide*, *izakide*, *izorkide...*).

c) Izenondoak. Itxura guztien arabera, osagaien arteko harremana (a) motakoen antzekoa da.

Hau horrela bada bi gertakarik emango lukete *kide*-ren jokabide berrian²⁸ argia:

1. *Kide*-z osatutako izenondoek gehienetan subjektu bizigabeen predikatuak eratzen dituzte.
2. Osagaien arteko harreman semantiko nagusia ez da «kokatzea».

*Kide*₂. Bi osagaien artean «osotasuna-zatia» bide da harremana: *sailkide* (*sail*-«osoa»-*kide*-«zattia»)...

4.2.2. Egitura-harremana

*Kide*₁: a) motakoak (*jabekide*...). Mota honen berezitasuna da bi predikatu ditugula kanpoko subjektuez predikatzen. Honek garamatza nola ispilatzen den hori elkartearen egitura, buru bakarrekoa edo bi burukoa ote den²⁹ erabaki behar izatera.

Hitz elkartuak bi osagaien ezaugarri guztiak bereganatzen dituela pentsatzen badugu («jabeak» eta «kideak» izatea), emendiozko harremana dugula esan beharko genuke. Baina, bestalde, erakutsi uste dugu *kide* dela burua: honek iragazten dizkio bere ezaugarri guztiak hitz elkartuari. Kontua da, hortaz, ea osagarri/buru ala adjuntu/buru harremana ote dugun hitz elkartu hauetan. Uste dugu adjuntu/buru harremanaren alde egin daitekeela, ezkerreko osagaiak ez duela *kide*-ren argumentu bat asetzen; ez dela bere osagarria.

b) motakoak (*lankide*...). Hemen ere adjuntu/buru harremana genukeela uste dugu.

c) izenondoak (*baliokide*...) ere modu berean ulertzen ditugu, adjuntu/buru. Bada, baina buruari doakion auzi bat: burua *kide* bada eta izena bada, nola ulertu elkartek izenondoak izatea? Exozentrikotzat³⁰ jo behar al dira? Eta, bestalde, nola azaldu behar da izenondook batez ere izen bizigabeen modifikatzaileak izatea?

Itxura guztien arabera, berriz ere *kide* predikatua izateak du eragina. Izaera predikatiboko izenek ez direnek baino aiseago bereganatzen dute bai izenen bai izenondoan eginkizuna. Ez dugu, hortaz, arrazoi aski ikusten exozentrikotzat jo behar izateko. [±gizakia] (edo [±biziduna]) ezaugarria, berriz, ez da *kide* predikatuaren beraren araberrakoa, modifikatzen duen izenaren azpikategoriaren araberrakoa baizik. Hortaz, ez dugu uste *kide*-ren azpikategorizazioa aldatu denik.

*Kide*₂: Uste dugu osagarri/buru harremana dagoela: elkartearen irakurkera egokia izateko ezinbestekoa da ezkerreko osagaia.³¹

4.3. Argumentu-egitura

*Kide*₁: Gure ustez predikatu honek argumentu-egitura du eta *kide*-z eraturiko hitzak «esperimentatzailea» kanpoko argumentua bereganatzen du. Predikatu simetrikoa izatean, beste kanpoko argumentu bat du eskakizun simetriazko harremana gauzatzeko.

²⁸ Azkarateren (1991: 93) dudaren aurrean, gure ustez euskararen baitatik azal daitezkeen aldatetak dira.

²⁹ Honezaz Odrizola eta Perez Gaztelu (2002) liburu honetan bertan.

³⁰ Jakina da termino hau ez dutela hizkuntzalari guztiak gisa berean erabiltzen. Guk, labur esan, bai kategoriaren aldetik bai esanahiarenetik burua elkartetik kanpo duena hartzen dugu halakotzat, Gràcia (2001) eta besteren ildotik.

³¹ Euskaltzaindiaren (1992) zati-elkarteen modura.

Bigarren argumentu hau, oro har, subjektu plural edo juntatuak («X eta Y lankideak dira»), nahiz ISren barrengo IS genitibo batek gauza dezake («X Yren lankidea da»). Hauxe da *kide*₁-en bereizgarri nagusia. Bestalde, ezinbestekoa ez badu ere, askotan darma modifikatzailea. Oro har, kidetasunaren funtsa adierazten duen modifikatzaileak leku-denborak edo gertaerak adierazten ditu eta hau gauza daiteke:

- batez ere lexikoan: Izen [-biziduna]: *lan, gogo, ...*
- sintaxian: batez ere IS(LEKU GEN.): *laneko kide...*

*Kide*₂: Arestikoetan bezala, *kide* honek ere kanpoko argumentua bereganatzen du, baina ez du beste kanpoko argumenturen beharrik. Argumentu-osagarria du. Hau ase daiteke:

- lexikoan, aldizka: I [-biziduna, +giza taldea]: *batzordekide...*
- ISn bertan, gehienetan: IS(LEKU GEN.): *batzordeko kide...*

5. Ondorioak

Erakutsi uste dugu Euskaltzaindiak (1992: 78) erdi-atzizkitzat jotako hiru izenen azterketan ez dagoela erdi-atzizkiez hitz egiterik: kategoria lexiko nagusiak dira. Era berean uste dugu gainerakoen azterketak ere ondorio beretara eramango gaituela, oraindik jendarteratzeko moduan ez bagaude ere. Guztiarekin ere agerian jarri dugu *erdi* horrek zerbaiten, kategoriaren, berri zehatzik ez dugula baizik ez duela adierazten: hiztegi-sarrerak diren edo ez diren da garbitu beharrekoa.

Aldi eta *bide*-ren azterketak ispilatu du izen arin izatea erabakigarria dela maiztasuna argitzeko. Gainera, erreferentzia osatu behar hori ez dagokie bakarrik izen horiei eta beste erdi-atzizkitzat jotakoei: deiktiko direlakoei ere badagokie.³²

Izen arinen aldeko beste argudio bat honakoa da: ezaugarri horiek dituzten izenek (izenetako batzuek, leku-denborazkoak eta adiera abstraktuak bereganatu dituztenek batez ere) aiseago onartzen dute beste eginkizun batzuk ere bereganatzea; alegia, kategoria lexiko modura dagokien morfosintaxi-banaketaz gain, azpikategorizazio jakin bat izatea. Horrela, Odriozolak (2001) deskribaturiko *aurre* bezalako izenek, izenaren ohiko banaketaz gain, jokamolde berezia dute morfologian zein sintaxian (postposizioak).

*Kide*₁ bestelakoa da era guztitara. Maiztasuna argitzeko beste arrazoi hoberik ezean, zenbait buruk modifikatzaile mota jakinekin gauzatzeko duten joera, baina ez beharra³³ ikusten dugu, jatorriaren azterna tarteko izan daitekeela ukatu gabe.

6. Bibliografia

- Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
 —, 1991, *Irakaskuntza proiektua*. (argitaragabea).
 Azkue, R. M., 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Tours, Bilbao (1984, Euskaltzaindia, Bilbo). [DVEF]
 —, 1923-25, *Morfología Vasca* (1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao).

³² Eta gure senak iruzur egiten ez badigu, baita multzo-, zati- eta mota-elkarteei ere.

- Bosque, I., 1985, «Sobre las oraciones recíprocas en español», *Revista de la Sociedad Española de Lingüística* 15: 1, 59-96.
- , 1990, *Tiempo y aspecto en español*, Cátedra, Madril.
- , 1999a, «El nombre común». In 1999c: 3-75.
- , 1999b, «El sintagma adjetival. Modificadores y complementos». In 1999c: 217-310.
- , 1999c (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa, Madril.
- De Miguel, E., 1999, «El aspecto léxico». In Bosque (arg.), Madril, 2977-3060.
- Dimitrescu, F., 1969, «Notes sur les suffixoïdes dans le Roumain littéraire actuel», *Revue Romaine de Linguistique* 1, 3-6.
- Elhuyar, 1996, *Euskara-gaztelania, castellano-vasco hiztegia*, Elhuyar, Usurbil. [ELH]
- Euskaltzaindia, 1987, *Hitz-elkarketa/1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1991, *Hitz-elkarketa/3*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1992, *Hitz-elkarketa/4*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Gracia, Ll., 2001, «Tipos de compuestos en las lenguas románicas y en vasco», EMES (argitaragabea).
- , M. T. Cabré, S. Varela, M. Azkarate et al., 2000, *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario. Resultados del proyecto de investigación DGICYT, PB93-0 546-C04*, EHU, Bilbo.
- Grimshaw, J., 1990, *Argument Structure*, The MIT Press, Cambridge MA.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque. (Navarro-Labourdin littéraire)* (1979, Elkar, Donostia).
- Leonetti, M., 1999, «El artículo». In Bosque (arg.), Madril, 787-890.
- Lieber, R., 1992, «Compounding in English», *Rivista di Linguistica* 4: 1, 79-96.
- Lyons, J., 1977, *Semantics*, Cambridge U. P., London (1980, *Semántica*, Teide, Barcelona).
- Marchand, H., 1960, *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*, Wiesbaden.
- Michelena, L., 1961, *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia [1977₂, 1985₃, 1990₃ 2. arg.]. [FHV]
- , eta I. Sarasola, 1987-, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo. [OEH]
- Odriozola, J. C., 2001, «Fronteras composición-prefijación y composición-sintaxis: construcciones con nombres adverbiales en vasco» (eskuizkr.). In *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios, DGES PB96-0457-C03* proiektua. (argitarag.)
- , eta E. Perez Gaztelu, 2002, «Aposizioa hitz-elkarteetan». Liburu honetan.
- Peregrín Otero, C., 1999, «Pronombres reflexivos y recíprocos». In Bosque (arg.), Madril, 1426-1517.
- Perez Gaztelu, E., 2001, «Mugako arazo batzuk: zain eta zale», *Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko biltzarra, Euskera*, Euskaltzaindia (argitarabidean).
- Sánchez, C., 1999, «Los cuantificadores: clases de cuantificadores y estructuras cuantificativas». In Bosque (arg.), Madril, 1025-1130.
- Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Kutxa, Donostia. [SEH]
- Uhlenbeck, C., 1909, «Suffixes du Basque servant à la connaissance de la formation des mots en Basque», *RIEV* 3: 1, 192, 401.
- Vendler, Z., 1967, *Linguistics in Philosophy*, Cornell University Press, Ithaca.
- Villasante, L., 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñati.
- Zabala, I., 1993, *Predikazioaren teoriak gramatika sortzaillean (euskararen kasua)*, Dokt. tesia, UPV/EHU.

³³ Urrutirago gabe, ez genuke esango lan egin predikatuak lekua ezinbestean eskatzen duenik (cf. *Jarri...*), osagarri hori duenik, baina askotan darabilgu predikazioa osatzen duen adjuntu hori.